



ILDO NAGUSIAK

2015 -2019 LEGEGINTZALDIRAKO

1.- UDAL ANTOLAKUNTZA – PARTE HARTZEA.

- **Prozesu parte hartzaileak bultzatu.** Herritarrek parte hartzeko bitartekoak egon badaude, baina ohiturak, joerak, uste okerrak, ... aldatzeko ahaleginak egiten jarraitu behar dugu.

- **Aurrekontuak.** Martxan daukagun horretan jarraitu eta indar gehiago ipini behar dugu. Urte osoko lan iraunkorra litzateke hau.

- **HAPOa.** Hurrengo legegintzaldian nahitaez burutu beharreko eginkizun nagusinetakoa.

2.- GARAPEN SOZIOEKONOMIKOA.

- **Eskualde mailako plangintza adostu.** Berton nahi dugu lan egin eta bizi. Horretarako turismoarekin batera alternatibak landu behar ditugu.

- **Merkatu plaza bultzatu.** Elikadura subirautza eredu hartuta, inguruko ekoizleekin elkarlana sustatu.

- **Itsasoari begira para.** Arrantza bultzatzeko ahaleginak egin ezezik itsasotik geureganatu genitzakeen baliabideak aztertu.





hari gara

ehbildu

3.- HIRIGINTZA ETA ETXEBIZITZA.

- **Etxebizitza.** Beharrian oinarrizkoenetakoa berau. Eskubide hau ahalbideratzeko politikak sustatu. Etxebizitza hutsen azterketa egin, alokairu sozialak landu, ...

- **Mugikortasunaren arloa.** Oinezkoentzako gunek berriak ireki. Bizikletaren erabilpena sustatu, ...

- **Guneak errekuaratu.** San Juan Talako-Santa Catalina lotu. Herri inguruko bideak egokitu.

4.- KULTURA - EUSKARA.

- **Euskeraren erabilpena.** Erabilpena maila kezkagarrian daukagu. Hasitako herri ekimenari hauspoa emon eta bide berriak jorratu.

- **Zinema bilera.** Azken urteko mailari eutsi.

- **Abaroa jauregia.** Gunea eraberritu, etorkizuneko kultur eta sorkuntza gunek hori martxan jartzeko herri kudeaketan sakondu.

- **Jaiak.** Osotasunean berrazterketa sakonari ekin: antolaketa moduak, bakoitzaren izaeran sakondu, iraupenak, ...

5.- GIZARTE-ONGIZATEA.

- **Oinarrizko premiei erantzun.** Egungo programei jarraipena emon eta berriak landu.

- **Gune asistentzialak.** Laguntza eskaerak bideratzeko gunek egokiagoak ziurtatu.





hari gara

ehbildu

6.- HEZKUNTZA.

- **Musika eskola.** Gune propioa egokitu.
- **Ateako eskolak eta maisuen etxeak.** Gune osoaren azterketa sakona egin. AEKri eta EPari lokal duinak behingoz eskeini.

7.- PAREKIDETASUNA.

- **Elkarlana.** Herriko emakume taldeekin elkarlana are gehiago sakondu.
- **Kontzientziazioa.** Oraindik beharrezkoegia den kontzientziazioan eraginkortu.

8.- INGURUGIROA.

- **Hondakinen bilketa eredu.** Hondakinen bilketa selektibora jo auzokonposta eta autokonposta bideratuz eta erreztuz.
- **Bidezidorrak errekuferatu.** Lea ibaiaren inguruan eta herri osoaren bueltan egon dagozen bideak errekuferatzeko plana zehaztu eta burutu.
- **Energia berriztagarriak eta kontsumo jasagarria.** Azterketak egin energia aurrezteko moduak aurkitzeko eta udal instalazioetan eredu berriak ezarri.

9.- KIROLA.

- **Kirol eredu.** Osasuntsua eta hezigarria bultzatu eta landu.
- **Kirol zerbitzua.** Kudeaketan, berrantolaketan eta zuzendaritzan sakondu.
- **Instalazioak.** Berritze lanketari ekin.





hari gara

ehbildu

10.- GAZTERIA/AISIALDIA.

- **“Pal-palian” ondorioztatutakoa.** Prozesu honetako emaitzetan sakondu beharra. Hasita dagoenari jarraitu eta sakondu.
- **Gazteriarentzat azpiegiturak.** Azpiegiturretan udalak daukan jabego urriari alternatibak bilatu beharra daukagu.
- **“Gazte lokalak”.** Gainerako herrietan modura ugalduz doaz lokalok. Udala eta gazteen artean arautu beharra denon hobebeharrez.

11.- LEA-ARTIBAI AMANKOMUNAZGOA.

- **“Estatutuen berrikuspena”.** Zaharkiturik geratu dira, egungo egoerara egokitu behar dira.

